

Enpresariak eta ekintzaileak bildu ditu Mondragon Unibertsitateak, Estatu-mailan bakarra den Barne Ekintzailtza eta Berrikuntza bidezko Masterraren aurkezpen-ekitaldian.

2011/11/18

Pertsona asko ekintzaile jaiotzen diren arren, beste asko adorez, ilusioz eta ikasketaren bidez bihurtzen dira halako. Ekintzaile izaten ikas daitekeela frogatzen du horrek. Mondragon Unibertsitateak horren uste sendoa du, eta halaxe frogatu zuen, duela hiru urte LEINN gradua (Ekintzailtza Aitzindaritza eta Berrikuntza) sortu zuenean, eta gero, iaz, Ekintzailtzari buruzko Masterra eratu zuenean. Biak ere titulu bakarrak dira Estatu mailan.

Mondragon Unibertsitateak, Mondragon Team Academy ekintzailtza-komunitatearekin batera, “Barne Ekintzailtza eta Lankidetzaren bidezko Berrikuntzako Nazioarteko Masterraren” II. Edizioa, Estatu-mailan parekorik gabea, aurkeztu zuen Enpresagintza Fakultatean.

Topaguneak lehen edizioko parte-hartzaileak eta koordinatzaileak bildu zituen. Euren esperientziak azaldu zituzten bertan, ekintzailtza sustatzeko, eta frogatzeko posible dela etorkizuna jorratzea, norberak sinesten dituen proiektuak abian jarri. Lehen edizioan, DANOBAT, EROSKI, INIT Taldea, GAIA edo NRG Marketing bezalako enpresetako barne-ekintzailtzako exekutibo-talde batek prestakuntza jaso eta, aldi berean, enpresa-proiektu berriak garatu zituzten “learning by doing” (eginez ikasi) metodologiari jarraituz.

Masterraren metodologia eta helburuak azaltzeaz gain, ekitaldi horretan izan zen Juan Freire, berrikuntza pedagogikoan nazio- eta nazioarte-mailako erreferentzia, eta masterrean irakasle arituko dena. Freire A Coruña Unibertsitateko irakaslea ez ezik, Barrabes.biz-eko berrikuntza-zuzendaria ere bada. Barrabes.biz aholkularitza-enpresa bat da, enpresei laguntzen diena, kide guztiengan gaitasun eta jarrera ekintzailea sustatuz, eraginkortasun eta efizientzia handiena lortzeko erakundean. Enpresekin, erakunde publikoekin eta GKE-ekin iraunkortasunari eta ingurumen-kudeaketari buruzko proiektuak jorratu eta aholkularitza-lana egiten du. Gainera, berrikuntzaren, estrategiaren, teknologiaren eta gizarte-sareetako eta erakundeetako kultura digitalari buruzko proiektuak ere lantzen ditu, batez ere unibertsitate, enpresa eta hiriekin batera. (www.juanfreire.net).

Masterra eta metodologia

Urtarrilean hastekoa den Barne Ekintzailtza eta Lankidetzaren bidezko Berrikuntzako Nazioarteko Masterrak urtebeteko eta 400 ikastorduko iraupena du. Enpresetako profesionali eta proiektu berritzaileen ekintzaileei zuzenduta dago, master exekutibo modalitatean, masterra eta eguneroko jardura uztartzeko moduan. Ahal dela, programan parte hartzen duen profesionalak berrikuntza-proiektu baten, autokudeatutako talderen baten edo barne ekintzailtzarako talderen baten ardura izan behar du bere erakundean. Hala ez bada, horrelako proiektu bat sortzeko asmoa izatea litzateke egokiena.

Finlandiako JAMK Jyväskylä University os Applied Science-ko ekintzailtza-unitatetik dator Master honetako ikasketa-metodoen muina. Unitate hori nazioarteko erreferentzia da hezkuntzan, eta munduko 17 eskola eta unibertsitatetan ez ezik, nazioarteko konpainia askotan ere erabiltzen dira beraren metodoak.

Mondragon Unibertsitatea Estatu mailako lehen Unibertsitatea eta Europa mailako bigarrena da Aitzindaritza eta Ekintzailtzako LEINN gradua abian jartzen. Izan ere, titulu hori Finlandian baino ez dago. Ohiko prestakuntza-eredua goitik behera iraultzea dakar, eta ikasleak enpresa eta proiektu berriak sortzen aitzindari izateko prestatzea da



helburua. LEINNen jardueretako bat, hain zuzen, horixe da: era horretako ekitaldiak antolatzea, 'Team Academy' metodologia finlandarra erabiliz. Talde horretako adituak dira berrikuntza- eta ekintzailtza-alarreko aditu nagusiak nazioarte-mailan, eta aho batez aitortzen zaie euren espezializazioa talde-ekintzailtzean, talde-lana eta ekintza bidezko ikasketa bezalako lan-metodologiak erabiliz.

Mondragon Unibertsitatea da Estatu mailan Team Academy metodologia irakats dezakeen bakarra, eta 'Mondragon Team Academy' titulua du, Finlandiako ekintzailtza-unitate horren ezagutza eta metodologia erabiltzeko. Duela hiru urte Mondragon Unibertsitateko Bidasoako campusean LEINN gradua abian jarri zenetik -ikasturte honetatik aurrera Oñatin ere ematen da-, ikasle-ekintzaileek 6 enpresa kooperatibo junior eratu eta 100 proiektutik gora burutu dituzte orain arte, 200.000 eurotik gorako fakturazioarekin. Enpresa horiek hainbat jarduera egiten dituzte: ekitaldiak antolatu, coaching-proiektuak, teknologia berrien bidezko landa-garapena, marka-ordezkaritza edo kirol taldeentzako balioak garatzea. Azken horri dagokionez, adibidez, Real Madrid futbol taldearekin ere aritu dira.

Masterreko blog-a: www.minnteam.com